

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN ALORREKO EKINTZETARAKO UDAL DIRULAGUNTZEN DEIALDIA
BASAURIKO UDALA, 2026. URTEA.

I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

1. Aplikatzea dagokion araudia

- 1.1 Deialdi hau argitaratzen dugu Basauriko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren babespean —2024ko maiatzaren 30eko osoko bilkuran onetsi zuten, eta urte bereko abuztuaren 6ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen—, hori da-eta dirulaguntzen oinarri arautzailea.
- 1.2 Beraz, Basauriko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak eta indarreko gainerako araudiak arautuko dute bai dirulaguntza horiek emateko prozedura, bai emailearen eta entitate onuradunaren arteko harremana.
- 1.3 Zehazki, eta administrazio-prozedurari dagokionez, urriaren 1eko 39/2015 Legea aplikatuko da (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legea).
- 1.4 Deialdi honetan aurreikusi gabeko kontuetarako, 38/2003 Legea (Dirulaguntzen Lege Orokorra) eta hura garatzen duen Erregelamendua aplikatuko dira (bigarren hori 887/2006 Errege Dekretu bidez onetsi zuten).
- 1.5 Era berean, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua aplikatuko da, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duena.

2. Eremua

- 2.1 Deialdi honek garapenerako gobernu kanpoko erakundeentzako (aurrerantzean, GGKE) dirulaguntzak arautzen ditu, honako proiektuetarako:
 - a) garapenerako lankidetzaren alorreko proiektuak pobretutako herrialdeetan, eta gizarte eraldatzeko heziketaren eremukoak (aurrerantzean, GEH).
 - b) Basauriko kooperanteentzako bekak.
- 2.2 Jarraian adierazitako ekintzak ez dira deialdi honetan sartzen, dela beste udal dirulaguntza espezifikoaren xede direlako, dela Udalarekin egindako hitzarmen indibidualekin bideratzen direlako. Hona hemen kanpo geratutakoak: a) laguntza humanitarioa edo larrialdietarako laguntza; b) beste herrialde batzuetatik datozen eta zaurgarritasun-egoeran dauden adin txikikoak Basaurin aldi baterako harreraren hartzeko programak; c) udalerriko etorkinen elkarteek aurkeztutako ekimenak; d) emakumeak ahalduztzeko ekintzak, eta Iparra-Hegoa ikuspuntu argirik ez duten tokiko emakumeen taldeentzako, kulturaren alorrekoentzako, emakume gazteen taldeentzako eta abarrentzako laguntzak.

3. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

- 3.1 Eskatera-orria, sinatuta. Orri horretan, eskatzaileak aitortu beharko du ez duela onuradun izateko debekutako bat ere ez (Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua jasotzen ditu debeku horiek).
- 3.2 Garapenerako lankidetzaren alorreko proposamenak aurkezteko inprimaki espezifikoak, eta/edo gazte kooperanteentzako bekak jasotzekoak. Eranskin gisa doaz (eranskinez gain, argibide teknikoak eta finantza-eremukoak jasotzen dira).
- 3.3 Entitatearen IFZ eta/edo beka eskatzen duenaren NANA.

- 3.4 Eskaera sinatzen duen pertsonak entitatearen izenean jardun dezakeela egiaztatzen duen agiria, eta ordezkari horren NANaren fotokopia.
- 3.5 Basauriko Udaleko Herritarren Parte-hartze Erakundearen Erregistroan inskribatuta ez dauden erakundeak, aipatutako agiriekin batera, dagokion erregistroan inskribatuta daudela egiaztatzen duen agiriaren fotokopia eta erakundearen estatutuen fotokopia aurkeztu beharko dituzte.
- 3.6 Udalari ez bazaio baimenik ematen zergak ordaintzeko betebeharrari buruzko datuak jasotzeko, zergak ordainduta daudela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira, zerga-administrazio eskudunak urte horretan bertan emandakoak.
- 3.7 Entitateak Gizarte Segurantzarekiko zorrik ez duela egiaztatzen duten agiriak, edo bere agindupeko langilerik ez duela egiaztatzeak, Diruzaintza Orokorrak urte horretan bertan emandakoak.
- 3.8 Basauriko Udalak finantzatutako aurreko lankidetzak-ekintzei buruzko adierazpena, sinatuta. Ekintza horiek zein fasetan dauden jakinarazi beharko da (aribidean, amaituta, justifikatzeko zain, edo Udalak jada justifikazioa onartuta).
- 3.9 Udalaren dirulaguntzaren bat edo Udalarengandik bestelako ordainketarik sekula jaso ez duten eskatzaileak ez dira Hirugarrenen Erregistroan inskribatuta egongo, eta, hortaz, emango zaien «Hirugarrenen Fitxa» aurkeztu beharko dute.
- 3.10 Gizarte-politika Arloak (Garapenerako Lankidetzak) egoki iritzitako dokumentazio eta informazio osagarria eskatu ahalko die eskatzaileei, aurkeztutako eskaera egokiro ebaluatu eta horri buruz ebazteko.

4. Eskabideak aurkeztea eta epeak

- 4.1 60 egun naturaleko epea egongo da eskabideak aurkezteko, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den dataren biharamunetik aurrera.
- 4.2 Eskabideak, aurreko apartatuan adierazitako nahitaezko dokumentazioarekin batera, telematikoki izapidetuko dira, Basauriko Udalaren Egoitza Elektronikoa (<https://sede.basauri.eus/eu/>).
- 4.3 Dokumentazio osoa euskarri digitalean aurkeztu beharko da, 1. kapitulu honetako 3.2 puntuan aipatutako formulario espezifikoekin batera.
- 4.4 Eskaerak ez badaude erabat beteta edo nahitaezko dokumentazioaz lagunduta, erakunde eskatzaileari errekerimendua egingo zaio, hamar egun balioduneko epean akatsa zuzen dezan edo nahitaezko dokumentuak aurkez ditzan. Era berean, adieraziko zaio hala egiten ez badu, joko dela eskaeran atzera egin duela, aurretiaz horren gaineko ebazpen espresua eman eta gero. Hala xedatzen du Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 artikulua.

5. Prozedura, ebaztea eta dirulaguntza ordaintzea

- 5.1 Gizarte-politika Arloak (Garapenerako Lankidetzak) izapidetuko ditu eskaerak. Enplegu, Ekonomia Sustapen, Merkataritza, Berdintasun eta Bizikidetzak Aniztasuneaneko Informazio Batzordeari dagokio dirulaguntzak esleitzeko proposamena onestea eta berau Alkatetzara helaraztea. Proposamena onetsi ala ezetsi egingo da norgehiagoka-araudiak xedatutakoari jarraituta eta Oinarri hauetan aurreikusitako balorazio-irizpideen arabera (irizpide horiek eranskin gisa jaso dira). Kooperanteentzako beken kasuan, Enplegu, Ekonomia Sustapen, Merkataritza, Berdintasun eta Bizikidetzak Aniztasunean eta Immigrazioko Informazio Batzordea izango da balorazioa egingo duen epaimahaia: deialdiaren xede den balorazioa egingo du, Basauriko

Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorren lehen xedapen gehigarrian aurreikusitakoaren arabera.

- 5.2 Eskabideak espresuki eta banan-banan eman ala ukatuko dira, alkatetza-dekretu bidez.
- 5.3 Dirulaguntza emateko ebazpenean, hura emateko baldintzak adieraziko dira, hala nola egikaritzeko epea, ekintzak justifikatzeko modua eta epea, aurkeztu beharreko dokumentazioa eta abar. Horrekin batera, onuradunek deialdi honetan ezarritakoaren arabera dituzten betebeharrak jasoko dira. Era berean, kasu bakoitzerako berariazko baldintzak ezarri ahalko dira, jardueren izaera zehatza edo beste baldintza batzuk direla-eta dirulaguntzen xedeak eta helburuak betetzeko egokitzat jotzen bada.
- 5.4 Eskaera baztertu egingo da, baldin eta eskatzaileak ez badu egiaztatzen, dagozkien ziurtagirien bitartez, ez daukala zorrik Basauriko Udalaren, Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin.
- 5.5 Eskatutako laguntza eman edo ukatzeko ebazpenek administrazio-bidea agortzen dute, eta, horien kontra, interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu dezakete erabakia eman duen organoan edo, zuzenean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioan aurkaratu.
- 5.6 Arau orokor gisa, proposamen bakoitzerako emandako zenbatekoa izango da eskatutakoaren % 100, baldin eta zenbateko hori jarraian datozen ataletan ezarritako aurrekontu-mugen barruan badago. Salbuespeneko kasuetan soilik, dirulaguntza eskatutakoa baino txikiagoa izan liteke. Kasu horretan, eskatzaileak proiektua/ekintza birplanteatu beharko du eta aurrekontua jasotakora moldatu, ala, bestela, dirulaguntzari uko egin.
- 5.7 Edozelan ere, onuradun guztiek berariaz eta idatziz onartu beharko dituzte emandako laguntza eta dirulaguntzaren baldintzak, eta, era berean, proiektuaren/ekintzaren hasierako data egiaztatu beharko dute, dirulaguntza ematen zaiela jakinarazteko komunikazioa jaso ondorengo hamar eguneko epean.
- 5.8 Eskabideak ebazteko gehieneko epea 6 hilabetekoa izango da, deialdia BAOn argitaratzen den datatik aurrera. Ukatutzat joko dira epe horretan ebazpen espresurik jaso ez duten dirulaguntzak, baina horrek ez du salbuetsiko Administrazioak eskabideak espresuki ebazteko duen betebeharra.
- 5.9 Oro har, dirulaguntza ordainketa bakarrean emango da, eta onartutako laguntzaren %100 ordainduko da, aurretiaz, dirulaguntza onartzen den unean. Horretarako, banku-transferentzia egingo da onuradunaren titulartasuneko kontu korrante batera, zeina diruz lagundutako jarduerarako/proiekturako izango baita, bakar-bakarrik.
- 5.10 Deialdi hau argitaratuko da bai udal webgunean, bai BAOn.

6. Bateragarritasuna beste dirulaguntza batzuekin

- 6.1 Garapenerako lankidetzaren alorreko Basauriko Udalaren dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio edo ente publiko eta/edo pribatuak proiektu bererako emandakoekin. Alabaina, proiektuak berezko nortasuna eduki beharko du: ez da diruz lagunduko beste proiektu bateko ekintza minimo bat, baizik eta emaitza eta helburu zehatz batzuk lortu nahi dituzten jardueren multzo bat biltzen duen proiektu bat. Horretarako, adierazi beharko da nortzuk diren gainerako finantzatzaileak, eta horiek onesten direla jasotzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko da. Edozelan ere, dirulaguntzetatik eta beste iturri batzuetatik lortutako finantzaketa ezingo da izan diruz lagundutako proiektuaren/ekintzaren kostua baino handiagoa.
- 6.2 Aintzat hartuta deialdi honetan araututako dirulaguntzak espezifikoa direla, arau orokor gisa ez dira bateragarriak izango Basauriko Udalean aurreikusitako beste udal-dirulaguntza lerro batzuekin.

7. Justifikatzea

- 7.1 3 hilabeteko gehieneko epea egongo da emandako dirulaguntzak justifikatzeko, diruz lagundutako proiektua/ekintza amaitzen den datatik aurrera.
- 7.2 Bai jarduerak bai, bereziki, justifikatutako gastuek, proiektua/ekintza garatzeko daten barruan egon beharko dute.
- 7.3 Ondorio horietarako, 5.3 puntuan aurreikusitako ebazpenean ezarritako hasiera- eta amaiera-data hartuko dira oinarritzat. Era berean, data horiek oinarrituko dira entitate onuradunak dirulaguntza onartzean (5.6 puntua) berretsitako hasiera-datetan.
- 7.4 Diruz laguntzeko aurkeztutako aurrekontuaren %100 justifikatu beharko da, ez bakarrik Udalak emandako kopurua. Hala xedatzen du Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak.
- 7.5 Diruz lagundutako proiektuen/ekintzen justifikazioa, bai hitzezkoa bai finantzaren alorrekoa, txostenen eta horien eranskinen ereduaren arabera egin beharko da (deialdi honen eranskinetan daude).
- 7.6 Proiektuaren/ekintzaren jarduerari dagozkien gastu zuzenak jatorrizko edo digitalizatutako fakturen bidez justifikatu beharko dira, eta, horiekin batera, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da, adieraziz faktura horiek jatorrizkoen digitalizazioak direla eta ez dela aldaketarik egon. Alabaina, Udalak jatorrizkoak eskatu ahalko ditu, aurkeztutakoekin erkatzeko. Formatuari dagokionez, pobretutako herrialdeetan garatutako nazioarteko lankidetzaren proiektuen kasuan, kontuan hartuko da berauek egiten diren herrialdean indarrean dagoen legeriak ezarritakoa. Edozelan ere, justifikazioak ondasuna/zerbitzua eman duena identifikatu beharko du, beti, eta ondasun/zerbitzu hori deskribatu beharko du. Proiektua/ekintza kofinantzatu dutenek egindako ekarpenekin bakarrik finantzatutako gastuen kasuan, kopia konpultsatuak onartuko dira. Kostua zenbait kofinantzatzailearen artean hainbanatzen bada, Basauriko udalari esleitutako ehunekoa adierazten duen zigilua jaso beharko da. Baimendutako gastu zuzenei eta horien mugei buruzko xehetasun gehiago daude deialdi honen hurrengo ataletan.
- 7.7 Zeharkako gastuak entitate eskatzailearen edo haren tokiko bazkidearen administrazio-kostu orokorreari dagozkie. Gastu horiek justifikatu ahalko dira entitate eskatzailearen beraren adierazpen batekin, non, batetik, gastu horiek egon direla berretsiko baita, eta, bestetik, berauen zenbateko zehatza jasoko baita. Baimendutako zeharkako gastuei eta horien mugei buruzko xehetasun gehiago daude deialdi honen hurrengo ataletan.
- 7.8 Justifikazioa egin beharko da eskatzaileak proposatutako eta Basauriko Udalak onetsitako helburua/lorpena, kokapena, xede-taldeak, bazkideak, jarduerak, kronograma eta aurrekontua oinarri hartuta. Basauriko Udalari proiektuaren edozein aldaketaren berri eman beharko zaio, idatziz, aldaketa eragin duten inguruabarrak agertu bezain laster (eta, noski, proiektua burutzeko epea agortu baino lehen). Basauriko Udalak espresuki baimendu beharko du dena delako aldaketa, honako hauetako bati baldin badagokio:
 - a) luzapenak, 3 hilabetetik gorakoak badira;
 - b) aldaketak helburuetan/lorpenetan, kokapenean, bazkideetan, lokaletan eta/edo xede-talde zuzenetan; eta
 - c) eragindako edozein gastu-lerrotan (jatorria eta xedea) izandako aurrekontu-aldaketak, % 20tik gorakoak baldin badira.
- 7.9 Dirulaguntza justifikatzeko betebeharra betetzen ez bada, edo nahikoa justifikatzen ez bada, jasotako diru-kopuruak itzuli beharko dira, berandutze-interesa eta guzti, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikulua 1. atalak xedatu bezala.

7.10 Onuradunari ez zaio beste dirulaguntzarik emango, lehenago emandakoak behar bezala justifikatzen ez baditu.

8. Aurrekontu-banaketa

8.1 2026ko deialdian, 180.000,00 €-ko aurrekontu-zenbateko zehatzak ditu Basauriko Udalak, guztira, garapenerako gobernu kanpoko erakundeei laguntzeko, garapenerako lankidetzaren alorreko proiektuetan. Kooperanteentzako beketarako, berriz, 4.000,00 €-ko zenbatekoa dago.

II. KAPITULUA GARAPENERAKO GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEENTZAKO DIRULAGUNTZAK, POBRETUTAKO HERRIALDEETAN GARAPENERAKO LANKIDETZAREN ALORREKO PROIEKTUAK, ETA GIZARTEA ERALDATZEKO HEZIKETAREN EREMUKOAK AURRERA ERAMATEKO

DIRULAGUNTZA-LERROA	GARAPENERAKO LANKIDETZA
DIRUZ LAGUNTZEKO KONTZEPTUA	GARAPENERAKO LANKIDETZAREN ALORREKO PROIEKTUAK POBRETUTAKO HERRIALDEETAN , ETA GIZARTEA ERALDATZEKO HEZIKETAREN EREMUKOAK
Aurrekontu-partida	053.2317.48102
Partidaren deskribapena	TA Garapenerako lankidetzaren alorreko proiektuak GARAPENERAKO LANKIDETZA
Zenbatekoa	180.000,00 €
Dirulaguntza emateko prozedura	NORGEHIAGOKA

1. Helburua

1.1 Deialdi honen oinarria da Basauriko Udalaren lankidetzaren deszentralizatua, non koherentzia eta erantzukidetasunean oinarritutako agertoki globala eraikitzeko tokiko gaitasunaren garrantzia azpimarratzen baita. Laguntza-lerro horrek bilatzen du erakunde- eta gizarte-sarea sendotzea lurraldetik, eta, aldi berean, tokiko garapen-prozesuei laguntza ematea eta Bizkaiko entitate sozialei erantzuteko beharrezko administrazio-tresnak eratzea. Basauriko Udalak jotzen du proiektuek eragina izan behar dutela pobretutako herrialdeetan berdintasunik eza eragiten duten arazoietan, eta, aldi berean, Basauriko herritarrek berdintasunik eza horien aurrean duten kontzientzia eta konpromisoan. Hautatuak izateko, beraz, proiektuek **ikuspegi bikoitz integratua** eduki beharko dute: garapenerako lankidetzarako jarduerekin batera, gizartearen eraldatzeko heziketaren alorrekoak jaso beharko dituzte.

1.2 Jasotako dirulaguntzaren zenbateko osoa aintzat hartuta, aurrekontuak honako gutxieneko eta gehieneko ehunekoak bete beharko ditu, kostu zuzenetan:

1. **Gizarte eraldatzeko heziketa:** dirulaguntzaren zenbateko osoaren % 10, gutxienez, eta % 20, gehienez.
2. **Garapenerako lankidetzaren:** dirulaguntzaren zenbateko osoaren % 80, gutxienez, eta % 90, gehienez.

1.3 Deialdi honi dagokionez, modu osagarrian garatutako ekintzen multzo artikulatuek osatuko dituzte garapenerako lankidetzaren eta gizartearen eraldatzeko heziketaren alorreko proiektuak. Ekintza horiek egingo dira bai lankidetzaren jasotzaileak diren Hegoaldeko lurralde eta komunitateetan, bai Basaurin. Beren helburuak, berriz, honako hauek izango dira: giza-garapen

jasangarriari lotutako prozesuak sustatzea; giza eskubideak, genero-ekitate, justizia soziala eta ingurumen-justizia bermatzea, eta berdintasunik eza eragiten duten egiturazko arrazoiak eraldatzea.

- 1.4 Proiektu horiek helburu zehatzak eta ebaluatzeko modukoak eduki beharko dituzte; aurretiaz identifikatutako biztanle-talde bati zuzenduak egon beharko dute; aldi jakin batean garatu beharko dira, eta aldaketa jasangarriak eragin beharko dituzte, batetik, eragindako komunitateetako bizi-baldintzetan eta gaitasunetan, eta, bestetik, herritarren konpromisoan eta erantzukidetasun sozialean, erronka globalei dagokienez.
- 1.5 Zehazkiago, kontuan hartuko dira Basaurin eta Bizkaian GEHren alorrean egingo diren ekintzak, honako hauek bilduko dituztenak: a) sentsibilizazioa: epe laburrerako ekintzak, unean unekoak, herritar kopuru zabal batengana heltzeko lehenengo urratsa direnak; b) heziketa eta prestakuntza: epe ertain eta luzerako estrategiak, xede-talde argia eta metodologia zehatza dutenak eta egoeren arrazoiak sakon aztertzen dituztenak, xede taldeari horren kontzientzia harrarazteko, eta, ondoren, ekiteko; c) ikerkuntza: gizarte-ikerkuntzarako tresnak baliatzen dituzten ekintzak, garrantzi berezia dutenak beste ardatz batzuetan gara daitezkeen ekintzetarako (adibidez, eragin politikoarena, garapen jasangarriko politika publikoen koherentzia bermatzen duen lankidetzarantz nagusi bezala), eta d) eragin politikoa eta gizarte-mobilizazioa: gizarte-, ekonomia- eta politika-egiturei eragiten dieten erabakietan eragitea, eta, horrez gain, herritarrek parte hartzea eta inplikatzeari ahalbidetzea helburu duten ekintzak (3/2024 Legea, otsailaren 15ekoa, Lankidetzarako eta Elkartasunerako, eta Garapen Jasangarriko 2030 Agenda).
- 1.6 Aipatutako ekintza horiek hiru mailatan garatu ahalko dira: a) eremu formalean: hezkuntza-prozesuak, aitorpen ofiziala duten eta agintaritza eskudunak onetsitako curriculumari jarraitzen dioten hezkuntza-instituzioek aurrera eramandakoak; b) eremu ez-formalean: antolatutako, argi eta garbi definitutako eta helburu espezifikoetarako diseinatutako praktikak, zentro ofizialetan eskaintzen ez direnak eta titulurik edo ziurtagiri ofizialik ez dakartenak, eta c) eremu informalean: nahi gabeko ekintzak, hau da, hezkuntza-prozesu etengabe eta bat-batekoak, hezkuntza formalaren eta ez-formalaren eremuetatik kanpokoak (familian, aisialdi-taldeetan eta abarretan gertatzen direnak).
- 1.7 Hori guztia horrela, eta arau orokor gisa, ez dira hautatuak izango laguntza-ekintza puntual eta bakanak, egiteaz batera agortu egiten direnak (dohaintzak egitea eta/edo materialak edo ekipoak bidaltzea, ikastaro bakanetarako bekak, Hegoaldeko pertsonekin egonaldi-trukeak eta/edo haien bisitak eta abar), ez bada aurreko atalaren baldintzak betetzen dituen goragoko mailako ekimen baten parte direla.
- 1.8 Proiektuak, bestalde, irabazi-asmorik gabekoa izan beharko du: ez dio inolako etekin ekonomikorik ekarri behar entitate eskatzaileari edo tokiko bere bazkideei, ez zuzenean, ez zeharka; eta ez du proselitismorik eragin behar (ez du interes politiko partidistatik babestu behar). Helburu nagusia izan behar da, bakar-bakarrik, pobretutako herrialdeetan pobrezia-aren aurka borrokatzea, giza-gaitasunak eta erakundeak indartzea, eta herrialde horietako biztanleen eskubideak bermatzea/sustatzea. Hori guztia, gainera, 2023 Agendaren GJH batzuekin bat etorrira.

2. Garapenerako lankidetzaren eta gizartearen eraldatzeko heziketaren eremuko proiektuen lehentasunak.

2.1 Herrialdeak lehenetsiko dira honako hauen arabera:

- a) Basauriren eta udalerriko GGKEen balio erantsia eta konparaziozko abantailak, eta

b) halabeharrez, zaurgarriagoak diren eta GGI (giza-garapen indize) baxuagoa duten eskualdeetan/herrialdeetan fokuratzea. Horrela, bada, eta diskriminazio positibo gisa, 5 puntu emango zaizkie Afrikan garatzen diren proiektuei.

- 2.2 Lehenetsuna emango zaie Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren printzipio, helburu eta xedeekin lerrokatutako proiektuei. Honako hauek baloratuko dira, bereziki: berdintasunik ezaren arrazoi estrukturalak iraultzen laguntzea; giza eskubideak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, ingurumen-jasangarritasuna eta justizia soziala sustatzea, eta garapen jasangarriarekin konprometitutako biztanleria global bat sendotzea.
- 2.3 Gizartea eraldatzeko heziketaren alorreko ekintzak Basauriko udal-mugartean garatzea. Udalaz gaindiko ekintza bat bada (foru, autonomia erkidego edo estatu mailakoa), frogatu beharko eragin zuzen eta espezifikoa izango duela Basauriko udal mugartean.
- 2.4 Ekintzak Iparra-Hegoa ikuspuntuan oinarrituta egotea eta loturak sortzea Basauriko errealitateen eta lan egiten den Hegoaldeko errealitateen artean. Horrekin batera, berdintasunik eza globalak ikusaraztea eta Basauriko herritarren artean erantzukidetasuna, elkartasuna eta justizia globalarekiko eta garapen jasangarriarekiko konpromisoa bultzatzea.
- 2.5 Entitate eskatzailearen epe ertain edo luzeko plan, programa eta/edo estrategietan modu koherentean txertatzea; adibidez, loturaren bat izatea pobretutako herrialdeetako beren ekintzekin, garapenerako heziketarako programa zabalagoen parte izatea, estatuko edo Europako ekimenekin lerrokatzea eta abar.
- 2.6 Sustatzea GGKEtik kanpoko beste talde batzuen jarduerak gauzatzen parte hartzea; bereziki, entitate eskatzaile(ar)en boluntario edo oinarri sozialaren artean, Basauriko etorkinen taldeetan eta/edo Hegoaldeko tokiko bazkideen artean.
- 2.7 Ekintzak transmititzen dituen mezu eta irudiek Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundearen Koordinatzailearen 1998ko Jokabide Kodea betetzea.
- 2.8 Ez dezatela diskriminatu arraza, sexu, erlijio edo iritzia dela eta. Batez ere, genero-ekitatearen alorreko kontuak jasotzea, aurreikusitako helburuetarako sarbidea bai gizonek bai emakumeek izango dutela bermatuko duten neurriekin, zeinak, epe luzeagora, emakumeek Basaurin duten rol eta posizio soziopolitikoa hobetzen lagunduko baitute.
- 2.9 Sentiberatze-jarduerak, bai herritar guztiei zuzendutakoak, bai talde espezifikoentzako direnak, arrazakeriaren, xenofobiaren eta giza eskubideen defentsaren gaiak ere jorra ditzatela.
- 2.10 Euskara txertatzea materialetan, hitzaldietan, zabalkunde-jardueretan eta abarretan, hala dagokion eta bideragarria den kasu guztietan, euskararen erabilerari buruzko barne-araudiak ezarritako baldintzak beteta.
- 2.11 Ez dira onartuko jada amaituta dauden ekintzak. Edozelan ere, ekintzak gauzatzen hasi beharko dira entitate eskatzaileari dirulaguntzaren zenbatekoa sartzen zaion datatik aurrerako 2 hilabeteetan.
- 2.12 Ekintzak 24 hilabeteko gehieneko epean burutzea.
- 2.13 Basauriko Udalararen logotipoa jasotzea, ikusten den toki batean, eta udal entitateak emandako laguntzaren berri ematea aurrera eramandako jardueretan, posible den kasuetan.

3. Baldintza komunak.

- 3.1 Ez daitezela proposatutako ekintzaren protagonista izango direnak diskriminatu arraza, erlijio, sexu eta/edo adina dela eta. Batez ere, genero-ekitatearen alorreko kontuak jasotzea, aurreikusitako helburuetarako sarbidea bai gizonek bai emakumeek izango dutela bermatuko

duten neurriekin, zeinak, epe luzeagora, emakumeek Basaurin duten rol eta posizio soziopolitikoa hobetzen lagunduko baitute.

- 3.2 Lan egingo den komunitateen sare soziala eta parte-hartzea indartzea eta oinarritzko erakunde sozialak/komunitarioak sortzea eta indartzea, eta bultzatzea bai horien sare-lana eta inplikazioa, bai haien eta tokiko agintarien eta erabakimen-eremuen arteko loturak era daitezela.
- 3.3 Garapen-prozesu eta/edo -estrategia zabalagoetan txertatzea, argi eta garbi; bai berauek ezartzen dituzten tokiko bazkideek, bai proposatutako ekintzak tokiko garapenaren alorreko politika eta lehentasunekin bat datozeela bermatuta. Ohiko plan, programa edo estrategietan txertatzea, epe ertain edo luzera, bai entitate eskatzailearenetan, bai xede-taldeekin garatzeko Basaurin aurreikusitako sentsibilizazio-ekintzetan.
- 3.4 Tokiko bazkide edo atzerrian horien kontrako alderdi den bazkide baten edo batzuen batez gauzatzea. Tokiko bazkidea izan ahalko da nortasun juridikoa duen irabazi-asmorik gabeko entitate bat edo erakunde publiko bat. 6.2 puntuan aurreikusitako ebazpena onetsi aurretik, eta berau emateko baldintza gisa, entitate eskatzaileak agiri bat aurkeztu beharko du beraren eta tokiko kontrako alderdi(ar)en konpromiso eta erantzukizunekin, alde biek sinatuta. Dirulaguntza, osorik edo zati batean, tokiko bazkide edo atzerriko kontrako alderdi horiek gauzatzea, ez da azpikontratazio gisa hartuko, 38/2003 Legearen 29. artikulua onorioetarako.
- 3.5 Ez dira onartuko jada amaituta dauden proiektuak. Edozelan ere, proiektuak gauzatzen hasi beharko dira entitate eskatzaileari dirulaguntzaren zenbatekoa sartzen zaion datatik aurrerako 2 hilabeteetan.
- 3.6 Proiektuak 24 hilabeteko gehieneko epean burutzea.
- 3.7 Oro har, eta behar bezala arrazoitutako salbuespenak salbu, proiektuek Basauriko Udalaren logotipoa jasotzea, ikusteko moduko toki batean, hori posible den kasuetan. Era berean, udal erakundeak emandako laguntzaren zabalkundea egitea, aurrera eramandako gainerako jardueretan.

4. Eskatzaileak.

- 4.1 Irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuak. Adibidez: GGKEak, erlijio-elkarteak, fundazioak eta horien pareko erakundeak, baldin eta haien estatutuetan, xedeetan, eginkizunetan eta/edo memorietan garapenerako lankidetzak berariaz jasota badago.
- 4.2 Egoitza nagusia edo delegaritza iraunkorra eduki beharko dute Bizkaiko Lurralde Historikoan; ahal dela, Basauriko udal-mugartean (proposamenen baremazioa egiterakoan, azken hori lehenetsiko da). Ondorio horietarako, ordezkaritza iraunkorra dagoela joko da, baldin eta erakundeak azpiegitura garrantzitsuak baditu Bizkaian eta hori dokumentu bidez egiaztatzen badu.
- 4.3 Dagokion deialdia argitaratzeko data baino bi urte lehenago, gutxienez, eskatzaileek eratuta eta EAEko dagokion erregistroan inskribatuta egon beharko dute (ahal dela, eta lehentasunez, Basauriko Udaleko Herriarren Parte-hartze Erakundearen Erregistroan: Kareaga Goikoa 52; tel.: 944 666 300).
- 4.4 Aurreko puntuan aipatutako entitateek eratutako partzuergoek ere aurkeztu ahalko dituzte eskabideak, baldin eta kide diren entitate guztiek betetzen badituzte adierazitako baldintzak. Udalak bereziki sustatuko ditu partzuergo horiek aurkeztutako proposamenak: proposamena balioesterakoan, puntu gehiago emango dizkie, eta beren proiektuetarako onartutako aurrekontuen gehieneko zenbatekoen mugak handituko ditu.

- 4.5 Partzuergoen kasuan, gainera, kide diren erakundeek beren gain hartuko dute proiektuaren erantzukizuna, modu bateratuan, eta helbide bakarra emango dute, espedientearen administrazio-jakinarazpenetarako. Hitzarmen batean zehaztuko dira erakunde bakoitzak proiektuan duen parte-hartzearen ehunekoa eta bakoitzaren eskubide eta betebeharrak, eta eskabidea aurkeztean horren guztiaren kontu eman beharko dute. Hitzarmen horretan, berariaz jasota geratu beharko da erakunde bakoitzak bere parte-hartze ehunekoaren gaineko zuzeneko erantzukizuna duela, eta erantzukizun subsidiarioa proiektuaren osotasunari dagokionez.

5. Eskabideak eta formatuak

- 5.1 Proiektuetako kontu teknikoek, narraziozkoek, eta aurrekontuen alorrekoek aurkezteko formatu espezifikoetan idatzita egon beharko dute, eta errespetatu beharko dute aurreikusitako egitura, apartatuak, edukia, luzera eta eranskinak (halakorik baldin badago). Deialdi honen eranskinetan daude formatu espezifikoak. Inprimakiak eta horien eranskinak Basauriko Udalaren Egoitza Elektronikokoaren bidez aurkeztuko dira.
- 5.2 Aipatutako formatuak eskuragarri egongo dira formatu digitalean, Udalaren webgunean, organizazioek deskargatu ahal izan ditzaten.

6. Balorazio-irizpideak.

- 6.1 Proposamenak baloratzerakoan, honako irizpideei jarraituko zaie: Deialdi honi erantsitako taulan kontsultatu daitezke irizpide bakoitzean baloratuko diren alde zehatz eta xehatuenak, bai eta bakoitzak baremazioan duen eragina ere¹.
- a) proiektuaren kalitate teknikoa (gehienez, 30 puntu)
 - b) parte-hartzaileen gaitasuna eta beren harremanen kalitatea (gehienez, 18 puntu)
 - c) genero-ikuspegia (gehienez, 20 puntu)
 - d) Ingurumen-jasangarritasuna (gehienez, 15 puntu)
 - e) aurrekontua (gehienez, 6 puntu)
 - f) lehenespen geografikoa (gehienez, 5 puntu)
 - g) balio erantsia, garapenerako lankidetzaren eta gizartea eraldatzeko heziketaren arteko harremana aintzat hartuta (gehienez, 6 puntu)
- 6.2 Proiektua ez badu, gutxienez, 50 puntu lortzen, ez da diruz lagunduko, joko delako ez dituela betetzen kalitate teknikoa bermatzeko gutxiengoak. Hori hala izango da, aurkeztutako proposamenei aurreikusitako aurrekontua agortzen ez badute ere.
- 6.3 Proiektuak barematzerakoan, aintzat hartuko dira, bakar-bakarrik, dirulaguntza eskatzeko inprimakian eta nahitaezko eranskinetan jasotako informazioa. Ez dira kontuan hartuko paragrafo honetan adierazitakoez besteko balizko beste informazio-iturri batzuk.

7. Zenbatekoak eta dirulaguntza-mugak.

- 7.1 Eskatzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal du pobretutako herrialdeetarako garapenerako lankidetzarako proiektuen deialdian.
- 7.2 Basauriko Udalari aurkeztutako proiektu bakoitzerako eskatutako dirulaguntza 20.000 eta 45.000 € bitartekoa izan beharko da, nahitaez. Eskatutako zenbatekoa muga horien barruan ez badago, berrikusteko eskatuko zaio proposamena aurkeztu duen entitateari, akatsak

¹ | Eranskina.

konpontzeko aurretiazko fasean zehar (I. kapituluaren 4.4 puntuan aurreikusten da). Zenbatekoa zuzentzen ez bada, joko da proiektua ezin daitekeela hautatu, haren kalitate teknikoa gora behera.

- 7.3 Basauriko Udalak proiektuaren zenbatekoaren % 100 finantzatu ahalko du.
- 7.4 Basauriko Udalaren dirulaguntzaren kontura finantzatuko diren funtzionamendu-gastu zuzenak ezingo dute gauditu emandako dirulaguntza osoaren % 5. Funtzionamendu-gastu zuzenen definizioa deialdi honen hurrengo atalaren 8.2 puntuan jasotzen da.
- 7.5 Basauriko Udalaren dirulaguntzaren kontura finantzatuko diren zeharkako administrazio-gastuek ezingo dute gauditu emandako dirulaguntza osoaren % 8. Zeharkako administrazio-gastuen definizioa deialdi honen hurrengo atalaren 8.3 puntuan jasotzen da.

8. Diruz lagundu daitezkeen gastuak

- 8.1 Diruz lagundu daitezkeen gastuak izango dira diruz lagundutako jardueraren izaerari argi eta garbi lotuta daudenak, zuzenean zein zeharka, ezinbestekoak direnak eta deialdi honetan ezarritako epean egiten direnak.
- 8.2 Diruz lagun daitezkeen gastuak izango dira zuzeneko kostuak, baldintza hauetan egiten direnak:
 - a) lursailak edo eraikinak erostea. Horien jabetza- eta titulartasun-araubidea egiaztatu beharko dira, nahikoa frogagiri aurkeztuta.
 - b) eraikinak eta azpiegiturak eraikitzea edo birgaitzea. Horien jabetza- eta titulartasun-araubidea egiaztatu beharko dira nahikoa frogagiri aurkeztuta.
 - c) ekipoa, materialak eta hornikuntzak erostea eta garraiatzea.
 - d) tokiko langileen kostuak.
 - e) erbesteratutako langileen kostuak. Horien barne egongo dira proiektuari lotutako profesionalen aseguruak eta soldadak. Kanpo geratzen dira egoitzan proiektuaren jarraipena eta ebaluazioa egingo duten langileen gastuak, zeinak zeharkako gastuen partidara bideratu beharko baitira.
 - f) proiektuari zuzenean lotutako jardueretarako kanpo-zerbitzuak (bereziki, tokiko giza baliabideen prestakuntza-kostuak).
 - g) dietak eta lurraldean ostatu hartu eta bidaiatzeagatiko gastuak.
 - h) proiektuaren funtzionamendu-gastuak: diruz lagundutako proiektuari oso-osorik eta zuzenean egotzi ahal zaizkion lurralde-gastu arruntak, bakar-bakarrik (esate baterako, proiektuaren eremuan zabaldutako bulego berri baten kasuan, kudeaketa-gastuak baino ez; edo proiekturako bakarrik erabiltzen den ibilgailuaren gastuak). Ezingo dira sartu entitate eskatzailearen edo bazkidearen beste funtzionamendu-gastu komun batzuk, zeinak zeharkako gastuetara egotzi beharko baitira; i) errotazio funtsa: onuradunei zuzenean edo espezieetan egindako maileguak, baldintza jakin batzuetan itzuli beharrekoak.
 - j) Bizkaian/Basaurin proiektuari zuzenean lotuta egindako sentsibilizazio-jardueren kostuak.
- 8.3 Zeharkako gastuak ere diruz lagundu ahalko dira (halakoxeak izango dira GGKE eskatzailearen administrazio-gastuak, kudeaketakoak eta langileen alorrekoak, proiektuaren identifikazioari, formulazioari, jarraipenari eta ebaluazioari lotutakoak). Gastu horiek emandako dirulaguntzaren % 8ren adinakoa izan ahalko dira, gehienez ere. Proiektuan jaso ahalko dira, dokumentuekin justifikatu beharrik gabe, zeharkako gastu gisa, nolana ere, organo emaileak egiaztatu ahal izango du. *(188/2025 Errege Dekretua, martxoaren 11koa, garapenerako lankidetzaz)*

jasangarriaren eta elkartasun globalaren alorreko dirulaguntzak eta laguntzak arautzen dituen, 21. 3 artikulua).

9. Justifikazio-formatuak.

- 9.1 Alderdi narratibo eta teknikoei dagokionez, proiektuak justifikatu beharko dira deialdi honen eranskinean jasotako justifikazio-formatu espezifikoaren bitartez. Bai inprimakiak bai horien eranskinak Basauriko Udalaren Egoitza Elektronikoen bidez aurkeztuko dira.
- 9.2 Aipatutako formatuak eskuragarri egongo dira formatu elektronikoen, Udalaren webgunean, organizazioek deskargatu ahal izan dituzten.

III. KAPITULUA.- BASAURIKO KOOPERANTEEI BEKAK EMATEKO DIRULAGUNTZAK.

DIRULAGUNTZA-LERROA	GARAPENERAKO LANKIDETZARAKO BEKAK
DIRUZ LAGUNTZEKO KONTZEPTUA	GARAPENERAKO LANKIDETZARAKO BEKAK BASAURIKO KOOPERANTEENTZAT
Aurrekontu-partida	053.2317.48010
Partidaren deskribapena	Garapenerako lankidetzarako beka GARAPENERAKO LANKIDETZA
Zenbatekoa	4.000,00 €
Dirulaguntza emateko prozedura	NORGEHIAGOKA

1. Helburua

- 1.1. Dirulaguntza-lerro honen xedea da beka bi emateko prozedura arautzea, Basauriko herritarrek elkartasunezko balioetan hezteko, zenbait errealitate zuzenean ezagutarazita.
- 1.2. Euskal gizartean elkartasun-balioak sustatzea da Eusko Jaurlaritzak eta eLankidetzak bultzatutako euskal lankidetzaren helburuetako bat, Lankidetzarako eta Elkartasunerako otsailaren 15eko 3/2024 Legearen arabera —zeina bete beharrekoa baita toki-erakundeentzat—.
- 1.3. Helburua da boluntario gisa jardun dezatela lankidetzan aritzen den GGKE baten proiektuan, pertsona horiek, gero, beren elkartasun-balioak sendotu eta garatu dituzten, beste kultura batzuetan eta testuinguru sozial eta ekonomiko desberdinetan bizitakoaren bitartez, eta, horrekin batera, balio horiek Basauriko gizartean zabaltzeko konpromisoa har dezaten.

2. Onuradunek bete beharreko baldintzak.

- 2.1. Beka lortu ahalko dute gutxienez 18 urte dituztenek.
- 2.2. Ezinbestekoa izango da egiaztatzea administrazio-egoitza Basaurin dutela.
- 2.3. Ezingo dute oinarri hauetan araututako beka jaso Basauriko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean jasotako inguruabarren bat duten pertsonak (ordenantza hori 2024ko maiatzaren 30eko osoko bilkuran onetsi zuten, eta urte bereko abuztuaren 6ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu). Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuko debekuren bat dutenek ere ezingo dute bekarik jaso (emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen du legegintzako dekretu horrek).

3. Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

- 3.1. Basauritik helmugarainoko joan-etorriak.
- 3.2. Bisa-gastuak.
- 3.3. Gaixotasunei eta istripuei aurre egiteko aseguru-poliza.

4. Balorazio-epaimahaia.

- 4.1. Eskabideak Berdintasun eta Lankidetzak Atalak (Lankidetzak) izapidetuko ditu. Enplegu, Ekonomia Sustapen, Merkataritza, Berdintasun eta Bizikidetzak Aniztasunean eta Immigrazioko Informazio Batzordea izango da balorazioa egingo duen epaimahaia: deialdiaren xede den balorazioa egingo du, Basauriko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorren lehen xedapen gehigarrian aurreikusitakoaren arabera.²
- 4.2. Laguntzak alkatetza-dekretu bidez eman edo ukatuko dira, espresuki eta banan-banan, eskabide bakoitzeko.

5. Ebazteko epea.

- 5.1. Prozedura ebatzi eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, gehienez ere. Epe hori zenbatuko da deialdia BAO-n argitaratzen den datatik aurrera.

6. Balorazioa.

- 6.1. Dagokion deliberazioa eta gero, Balorazio-epaimahaiak beka emateko proposamena egingo du.

7. Zenbatekoa.

- 7.1. Beka bakoitza 2.000,00 €-koa izango da.

8. Iraupena.

- 8.1. Bekaren xede izango diren lanen iraupena hiru hilabetekoa izango da, gehienez.

9. Beka jasotzen duen pertsonaren betebeharrak.

- 9.1. Beka jasotzen duenak honako konpromiso hauek hartzen ditu:
 - a) Oinarri hauetan ezarritako arauak betetzea bekaz gozatzeko epe osoan zehar, etengabe.
 - b) GKE tutoreak deitutako formakuntza-ekintza eta bilera guztietan parte hartzea.
 - c) Helmugan egotea 30 egunez, gutxienez, eta 90 egunez, gehienez, GKE tutoreak ezarritako eginbeharrak betetzen.
 - d) Txosten elebiduna aurkeztea, bizitakoaren balorazioari buruz. Txosten hori Basaurira itzuli eta, gehienez, hilabeteko epean aurkeztu beharko da.
 - e) Basaurira itzultzeko datatik sei hilabeteko epean, Basauriko Udaleko Garapenerako Lankidetzak Zerbitzuak deitutako sentsibilizazio-ekintza guztietan parte hartzeko prestasuna izatea.

² I eranskina.

f) Basauriko Udalaren Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuak antolatu ditzakeen komunikazio- eta formakuntza-ekintza guztietan parte hartzea, bai helmugara joan aurretik, bai ostean.

10. Eskabideak eta formatuak

10.1 Ekintzen kontu teknikoek, narraziozkoek, eta aurrekontuen alorrekoek aurkezteko formatu espezifikoetan idatzita egon beharko dute, eta errespetatu beharko dute aurreikusitako egitura, apartatuak, edukia, luzera eta eranskinak (halakorik baldin badago). Deialdi honen eranskinetan daude formatu espezifikoak. Bai inprimakiak bai horien eranskinak Basauriko Udalaren Egoitza Elektronikoen bidez aurkeztuko dira.

10.2 Aipatutako formatuak eskuragarri egongo dira formatu digitalean, Udalaren webgunean, organizazioek deskargatu ahal izan ditzaten.

11. Justifikazio-formatuak.

11.1 Ekintzen alderdi narratiboak, teknikoak eta aurrekontuari lotutakoak justifikatu beharko dira deialdi honen eranskinean jasotako justifikazio-formatu espezifikoaren bitartez. Bai inprimakiak bai horien eranskinak Basauriko Udalaren Egoitza Elektronikoen bidez aurkeztuko dira.

11.2 Aipatutako formatuak eskuragarri egongo dira formatu elektronikoan, Udalaren webgunean, organizazioek deskargatu ahal izan ditzaten.

I. ERANSKINA BAREMAZIO-TAULAK.

II. KAPITULUA: GARAPENERAKO LANKIDETZA ETA GIZARTEA ERALDATZEKO HEZKUNTZA

1. Proiektuaren kalitate teknikoa (gehienez, 30 puntu)

1.1 Proiektuari buruzko informazioa (5 puntu)

1.1 GGKEak puntu guztiak lortuko ditu (5 puntu), baldin eta:

- ✓ Proiektua planifikatzeko prozedura azaltzen badu.
- ✓ Xede-biztanleria bizi den ingurune hurbilaren ezaugarri politiko, ekonomiko eta sozialak azaltzen baditu. Testuinguruaren analisi hori Hegoaldeko herrialdeari buruz egin beharko da, eta gai horrek Basauriko errealitatearekin duen lotura ezarri.
- ✓ Xede-biztanleriaren ezaugarriak behar bezainbeste finkatzen badira (bai Hegoaldeko biztanleriarenak, bai Basaurikoarenak), proiektuaren gaiari dagokionez.
- ✓ Proiektua GJHrako zeinetara lotuta dagoen ezartzen bada.

1.1.b Irizpide honetako osagai bat edo bi faltan egonez gero, puntu gutxiago emango dira (3 puntu).

1.1.c Aurkeztutako informazioan osagaietako bi baino gehiago falta badira, 0 puntu lortuko dira.

1.2 Koherentzia arazo, helburu, emaitza eta ekintzen artean (10 puntu)

1.2 GGKEak puntu guztiak lortuko ditu (10 puntu), baldin eta:

- ✓ Argi eta garbi eta zehatz-mehatz azaltzen badu zein den heldu nahi dioten arazoa, eta arazo horren eta biztanleriaren beharrian eta interesen arteko harremana finkatzen badu.
- ✓ Proiektuaren xedeak harreman argia badu justifikazio-atalean deskribatutakoarekin.
- ✓ Gizartea eraldatzeko heziketaren alorreko Basaurin garatu beharreko ekintza(k) harreman estua badu(te) Hegoaldeko herrialdean landutako gaiarekin.

1.2. b Irizpide honetako osagaietako bat falta bada, puntu gutxiago lortuko dira (5 puntu).

1.2. c Informazioa eta koherentzia eskasak badira, 0 puntu lortuko dira.

1.3 Adierazleak eta egiaztatze-iturriak (5 puntu)

1.3. a Helburuak zenbateraino bete diren neurtzeko eta objektiboki egiaztatzeko adierazleak egon beharko dira, prozesuaren inpaktuari eta eragindako aldaketei buruz.

Helburuak eta inpaktua neurtzeko adierazleak proposatu, eta egiaztatze-iturriak azaltzen badira, **5 puntu** lortuko dira.

Helburuei lotutako adierazleak bakarrik aurreikusi badira, edo egiaztatze-iturriak txertatu ez badira, 2 puntura jaitsiko da puntuazioa.

1.4 Estrategia (5 puntu)

Proiektua Hegoaldeko tokiko erakunde publiko baten garapen edo gizarte-eraldaketa plan/estrategia bati lotuta egotea. Berariaz adierazi beharko da diruz laguntzeko eskatzen den proiektua zein puntu zehatzekin lotzen den, eta estrategia horri buruzko dokumentua jaso, eranskin gisa.

1.5 Abala (5 puntu)

Hegoaldeko tokiko erakunde batek emaitzak mantentzeko beharrezko baliabideak emateko konpromisoa hartu izana. Puntuak lortzeko, abala erantsi beharko da.

2. Parte-hartzaileen gaitasuna eta beren harremanen kalitatea (gehienez, 18 puntu)

2.1 Sentsibilizazio-ekintzak Basaurin (3 puntu)

GGKEak adieraztea azken bi urteotan 3 sentsibilizazio-jarduera egin dituela, gutxienez, Basauriko udalerrian.

2.2 GGKE eskatzaileak proiektuaren sektorean duen esperientzia (2 puntu)

Entitate eskatzaileak diruz laguntzea eskatzen den proiektuaren sektorean besteren bat egin izana.

2.3 Tokiko GGKEak proiektuaren sektorean duen esperientzia eta gaitasuna (2 puntu)

Tokiko entitateak aurretik proiekturen bat garatu izana udalerrri berean, edo biztanleria berari zuzenduta.

2.4 Entitate eskatzailearen eta tokiko kontrako alderdiaren arteko harremana (3 puntu)

Entitate eskatzaileak eta tokiko kontrako alderdiak 3 proiektu, gutxienez, garatu izana elkarrekin.

2.5 Xede-biztanleriak proiektuaren zikloan parte hartzea (5 puntu)

2.5.a Proposamenak puntuazio altuena (5 puntu) lortuko du, baldin eta xede-biztanleriak proiektua diseinatzen eta gauzatzen parte hartu badu (parte-hartze dinamiken bitartez).

2.5. b Xede-biztanleriak, modu aktiboan, proiektua gauzatzen bakarrik parte hartu badu, puntu gutxiago lortu badira (3 puntu).

2.6 Proiektua GGKEen partzuergo batek aurkeztea (1 puntu)

GGKEak proiektua beste entitate batekin partzuergoa eratuta aurkeztea, baldin eta hori egiaztatzen bada alde biek sinatutako hitzarmena aurkeztuta.

2.7 Entitate eskatzailearen egoitza (1 puntu)

Entitate eskatzaileak egoitza Basauriko udalerrian edukitzea.

2.8 Jarraipena ematea Basauriko Udalaren lankidetzari (1 puntu)

Proposamena Basauriko Udalak aurretiazko lau deialdietan onetsitako baten jarraipena bada.

3 Genero-ikuspegia (gehenez, 20 puntu)

3.1 Zeharkako ikuspegia (15 puntu)

3.1. a Gizonen eta emakumeen arteko botere-harremanen analisia egitea eta interseksionalitatearen ikuspegia ere txertatzea, berdintasunik eza dakarten honako hauek aintzat hartuta: etnia, sexu-orientazioa, gizarte-klasea, adina, desgaitasuna eta abar. Eta, analisi horrekin bat, ikuspegi hori modu transbertsalean jasotzea emaitzetan, adierazleetan eta jardueretan (15 puntu).

3.1. b Analisiak ez badio irizpidean aipatutakoari erantzuten, edo irizpidea emaitza, jarduera edo adierazleren batean bakarrik islatuz gero, 6 puntu emango dira.

3.2 Organizazio feministak (5 puntu)

Emakumeen eskubideen alde borrokatzen duten tokiko organizazioekin lankidetzan aritzea aurreikusiz gero, 5 puntu emango dira.

4 Ingurumen-jasangarritasuna (gehenez, 15 puntu)

4.1. Zeharkako ikuspegia (15 puntu)

4.1 a Proiektua garatuko den testuinguruaren ingurumen-egoera aztertzea, eta analisi horren emaitza eta aurkeztutako ekimena aintzat hartuta, ikuspuntu hori modu transbertsalean jasotzea emaitzetan, adierazleetan eta jardueretan (15 puntu).

4.1. b Esku hartuko den eremuaren ingurumen-egoera zein den aztertzen ez bada, edo ikuspegia emaitzetako, jardueretako edo aurreikusitako adierazleetako batean edo batzuetan bakarrik islatzen bada, 6 puntu emango dira.

5 Aurrekontua (gehienez, 6 puntu)

5.1. Aurrekontu banakatua (3 puntu)

Partidaka antolatutako aurrekontua banakatua egon beharko da. Banakatzea izango da bereganatu nahi den ondasun edo zerbitzu bakoitzaren kostu unitarioa adieraztea. Kasu honetan, 3 puntu emango dira.

5.2. Finantza-bideragarritasuna (3 puntu)

Proiektuaren onurak mantentzeko beharrezkoak diren baliabideen balioespena aurkeztu beharko da (3 puntu).

- Ekonomia-garapenaren alorreko proiektuak. Kasu horretan, abiarazi nahi den ekimenaren finantza-bideragarritasunari buruzko azterlan osoa aurkeztu beharko da.
- Ekonomia-garapenaren alorrekoak izan ez arren, mantentzeko diru-sarreraren bat behar duten proiektuak. Adibidez: ura hornitzeko sistemak, eskola bat, komunitate-zentro bat... eraikitzea. Kasu horietan, nahikoa izango da mantentze-kostuen eta horiei erantzuteko diru-sarreraren jatorriaren balioespen soila egitea.
- Beste proiektu batzuei ez zaie irizpide hori aplikatzen; adibidez, organizazioak indartzekoak edo emakumeen aurkako indarkeria prebenitzekoak.

6 Lehenespen geografikoa (gehienez, 5 puntu)
--

6.1 Afrikako kontinentea (5 puntu)

Proiektua Afrikako kontinenteko herrialde batean egitea.

7. Balio erantsia, garapenerako lankidetzaren eta gizartea eraldatzeko heziketaren arteko harremana aintzat hartuta (gehienez, 6 puntu)

Baloratuko da gizartea eraldatzeko heziketaren alorrean abiarazitako ekintzak **sozializazio kritikoko** prozesu zabal baten parte izatea. Halako prozesuek Basauriko herritarrei ahalbidetzen diete ikuspegi kritikoa txertatzea mundua interpretatzeko orduan, eta aldaketarako alternatibak sortzea, garapenerako lankidetzaren alorreko proposamenetatik, edukietatik eta jardun duten eragileetatik abiatuta. Gizartea eraldatzeko hezkuntzaren alorreko ekintza horien gastua eskatutako dirulaguntza osoaren **% 10 -% 20** izango da, eta aurrekontuan jarduerak jaso beharko da. Proposatutako jarduerak aurreikusten badu garapenerako lankidetzarekin harremana duen Hegoaldeko norbanako edo kolektiboren batek **modu aktiboan parte hartzea**, 6 puntu emango dira.

Sozializazio kritikoko jarduera egiten bada kooperazio-ekimena aurrera eramaten den Hegoaldeko norbanako edo kolektiborik parte hartu gabe, 2 puntu baino ez dira lortuko.

Beste kasu guztietan, 0 puntu emango dira.

III. KAPITULUA: GARAPENERAKO LANKIDETZARAKO BEKAK BASAURIKO KOOPERANTEENTZAT
--

20 puntu lortu ahalko dira gehienez, honela banatuta:

- a) izangaiaren curriculum vitae: 0 eta 4 puntu bitartean.

- b) proiektuaren kalitatea eta gaiaren interesa: 0 eta 10 puntu bitartean.
- c) Proiektuak Basauriko Udalaren Lankidetzako Marko Estrategikoaren lehentasunezko ardatzekin duen harremana: 0 eta 2 puntu bitartean.
- d) xede soziala duten organizazioen kide izatea edo halakoetan boluntario gisa jardun izana: 0 eta 4 puntu bitartean.